

MUTRIKUJendeak itzala bilatu zuen goitiberak ikusteko. **ARGAZKIAK A. GORRITIBEREA**

Txikiak izango dira protagonista Galbaixo txiki egunean

Musika bandaren kontzertuan omenaldia eskainiko zaio Migel Arrietari

A. GORRITIBEREA

MUTRIKU. Mutriku jende askok kanpoan lana egiten duela agerian gelditu zen atzo, izan ere duela hiru urte baino jende gutxiago batu baitzen Galbaixoko ermita ingurura. Hala eta guztiz giroa berezia izan zen, eguraldi beroa tarteko. Garraio zerbitzua ona izan zen hiru autobus etengabe aritu zirelarik jendea igotzen. Hiru meza izan ziren eta bereziki erakargarria herri kirolen saioa izan zen Paulo Azpiazu buru izan zelarik. Duela urtebete hasi da harriekin eta ikusi egin behar da ze erakustaldi egin zuen atzokoan.

Karmeles Gisasola, Uxue Anso- rregi, Aratz Mugertza eta Jesus Mari Mujikaren ekitaldia ere bikaina izan zen. Tartean, Unai Andonegi, Jon Anso- rregi eta Joxe Mandiola aritu ziren erromeria



Anaiarteko danborradak jende asko mugitu zuen bezperan.

giroa jarriaz. Bola tokia ere ireki zen, eta eguerdian goitiberak izan zuten protagonismo guztia.

Goitibera gutxiago

Goitibera jaitsieran berriz agerian gelditu zen tramankuluek mantenimentua behar dutela, izan ere lauren bat goitibera bidean gelditu baitziren erroberak gatatuta edo eta ardatza hautsita. Ez zen zauritu handirik izan eta arratsalde-gauean festa giroa kaleratu da.

Gaur berriz, Txoko Eder elkar-

teak antolatutako marmitako lehiaketa izango da usain goxoa zabalduko duena herrian. 15 bikote arituko dira guztira. Goizeko 11:00etatik 14:00ra txirristaka izango dute txikiek Egañaneko frontoian. 11:30ean, erraldoi eta buruhandien konpartsa aterako da eta hor lehertuko da jai. 12:30ean, Saka abeltzeko pottokak eta zezen txikiak izango dira Txurruka plazan eta 13:00etan, Musika Bandaren kontzertua hasiko da Beheko Plazan. Josean Pascual izango da zuzendaria eta



Dotorea bai, baina goitibera hau Txurruka plazara iristeke gelditu zen.



Paulo Azpiazu bergararra harria lepoan duela.



Unai Andonegi, Jon Anso- rregi eta Joxe Mandiola trikitilariak.

bukaeran sorpresarik ere izango da, duela gutxi zendu den Migel Arrietari omenaldia eskainiko zaiolarik. Arratsaldeko 14:00etan, marmitako lehiaketako sari banaketa izango da eta arratsaldean 17:00etatik 19:00etara txirristaka saioaren bigarren parte

izango da Egaña frontoian, 18:00etan sokamuturra Sakaren zezenekin eta 20:00etatik 23:00etara diskofesta Beheko Plaza. Guztia hau bihar antolatu den mariñel egunaren atarian, gainera bihar Puro Relajo taldea arituko da 22:00etatik aurrera moilan.

SORALUZE

Abierta la matrícula en el euskaltegi

NEREA ISASTI

SORALUZE. El euskaltegi AEK de Soraluze ya tiene abierta la campaña de matriculación para el curso 2022-2023; el lema elegido para este año es 'La mejor compañía para aprender euskera'. El euskaltegi cuenta con una oferta tanto presencial como de autoaprendizaje, basada en una metodología comunicativa y con un horario flexible.

Ofrece una amplia oferta de cara al curso que comienza en octubre: Euskaldunización gene-

ral a todos los niveles, cursos con fines especiales o perfiles lingüísticos. El plazo de inscripción en el euskaltegi finaliza el 30 de septiembre. Para inscribirse u obtener información sobre los cursos hay que acudir al euskaltegi los martes, miércoles o jueves, de 18.00 a 20.00 horas o llamar al 943 75 14 34.

El Ayuntamiento subvencionará entre el 50% y el 100% del coste del curso. La información sobre las subvenciones también se puede obtener en el propio euskaltegi.

MENDARO

Gazte zerbitzuen irekiera aste bukaera honetan

Zubigazte zerbitzua ere eskainiko da arratsaldeko 17:00etatik 18:00ak arte

AMAGOIA ZABALA

MENDARO. Bihar ostirala, hilak 16, arratsaldeko 18:00etatik iluntzeko 20:00ak arte, oporraldiaren ostean Gazteleku zerbitzua zabalduko da. Aste bukaera osoan zehar zabalik egongo da, hau da ostirala, larunbata eta igandean goian azalduko

ordutegian irailetik ekainera.

Gazte zerbitzua izanik, DBH zikloan ikasten ari diren gazteak sartu ahalko dira.

Zubigazte

Gaztelekuaren irekiarekin batera, astebukaera honetan Zubigazte zerbitzua eskainiko da. Zerbitzu hau, gaztelekuaren emango dute eta larunbatean izango da arratsaldeko 17:00etatik 18:00ak arte eta bertara Lehen hezkuntzako 5 eta 6 mailan ikasten ari diren gaztetxoak joan ahalko dira.

ERMUA

Última llamada para participar en el concurso 'Bookface'

K. ITURRIAGAGOITIA

ERMUA. La Biblioteca municipal recuerda que hoy finaliza el plazo para participar en el concurso de verano 'Bookface'. Cada participante puede enviar tantas fotos como desee a biblioteca@udalermua.net o por WhatsApp (34 943 17 92 12). El plazo finalizará hoy jueves 15 de septiembre. Se han establecido tres categorías: menores de 14 años, de 15 a 30 años, y mayores de 31 años.